

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura
garaikidea


ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
ABE. 3 2020 > URT. 31 2021

Mario Paniego

Espacio público(itari)o

Komisario Berriak

ESPACIO PÚBLIC(ITARI)O LANAK
HAUSNARKETA KRITIKOA ETA
ERAIKITZAILEA PROPOSATZEN
DU, PUBLIZITATEAK
ESPazio PUBLIKOAN DUEN
PRESENTZIARI ETA HIRIKO
BIZITZA SOZIALEAN DUEN
ERAGINARI BURUZ



Mario Paniegok publizitateak eremu publikoan duen eragina berrikustea proposatzen du, urtarrilaren 31ra bitartean Kulturen Atarian ikusgai egongo den *Espacio público(itari) o* erakusketaren bidez.

Komisariotza bultzatzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak duen **Komisario Berriak** programaren esparruan, Mario Paniegok gonbit egiten digu gogoeta egitera, gaur egun publizitatea zenbateraino dagoen hedatuta, «non ezinezkoa baita eguneroko bizitzan sortzen duen zaratatik urruntzea. Espazio publikoan eta pertsonalaren zati handi bat kentzen digu. Estimuluz betetzen gaitu eta geure buruaz husten», adierazi du.

Proiektu honen bidez, Mario Paniegok erakusten ditu São Paulo, Wrocław eta Grenoble hirietako eremu publikoan publizitatearen erabilera murrizteko abian jarri diren ekimenak, baita nola ezarri diren ere.

Bestetik, erakusketak biltzen ditu gai honen inguruan lan egiten duten **Laura Marte**, **Jason Eppink**, **Maidor López**, **Tony de Marco**, **Dobro** eta **Vermibus** nazioarteko kolektiboan eta artisten jarduera artistikoa eta aktibista, publizitate-euskarriak erabili baitituzte beren proposamenetarako edota eremu publikoa gogoeta soziala sortzeko. Erakusketa osatze aldera, **Irene Cuesta del Cura** eta **Eder Gutiérrezen** piezak izango dira ikusgai. Pieza horiek EHUKo Arte Ederretako eta IED KUNSTHALeko ikasleei irekitako deialdiaren bidez hautatu dira, proiektuan parte hartzeko.

Espacio público(itari) o erakusketa-proiektuaren barruan, Mario Paniegok joan den azaroaren 27an, Black Fridayrekin batera, ekintza bat egin zuen Bilboko kaleetan eta Azkuna Zentroan, eta pantaila batzuetatik publizitatea hustea sustatu zuen, Vermibus artistak 2014az geroztik bultzatzen duen bezala, NOADDAY ekimenaren bidez, eta Buy Nothing Day mugimenduarekin bat etorritz.



MARIO PANIEGO Bilbo, 1978). Arte Ederretako lizentzia lortu zuen University of the West of England-en,

eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu baitzuen (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketa Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko unibertsitatea) egin zituen.



2020ko abenduak 3 > 2021eko urtarrilak 31

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik



Mahai-ingurua

Espacio público(itari) o

Urtarrilak 20, asteazkena

18:00

Mediateka. TK202

Sarrera dohainik,

azkunazentroa.eus webgunean izena eman ondoren

Parte hartzaileak:

- **Pablo Vilá.** Comunitac-eko CEO-a
- **Tomás del Hierro.** Bilboko Udaleko Espazio Publikoaren arloko zuzendaria
- **Karmele Herranz Pascual.** Gizarte eta Ingurumen Psikologian doktorea eta Hiri Konforteko ikertzaile espezialista TECNALIA Research and Innovation-en.
- **Ula Iruetagoiena.** Arkitektoa eta EHUKo irakaslea



 mariopaniego.com